

# NAFARROAKO KRONIKA: OBERENA A-K, ORVINA A-RI IRABAZI ONDOREN, EDERKI ESTUTU DU SAILKAPENA.

2006.go azaroaren 4an Nafarroako Taldekako Xake Txapelketako bosgarren ihardunaldia jokatu zen.

## MAILA NAGUSIA.

Urteko neurketa berriz ere Nafarroako bi talderik handien artean, Orvinaren lokalean. Oberena Ak 3-5 irabazi zuen, figurez beteriko lehian. Beraz, sailkapenean Orvinarengandik puntu batera jarri da. Bi ihardunaldi geratzen dira eta puntuz berdinduz gero, Oberena A izanen da txapeldun. Berdintasuna handia da, beraz.

Hauexek izan ziren emaitzak:

Unai Garbisu (Orvina A) – Stuart Conquest (Oberena A): 0'5-0'5.

**Jesús De la Villa (Oberena A)** – Miguel Rada (Orvina A): 1-0.

Sergio Navarrete (Orvina A) – Miguel Navarro (Oberena A): 0'5-0'5.

**Mikel Huerga (Oberena A)** – Juan Jesús Mindegia (Orvina A): 1-0.

**Iñaki Rebolé (Orvina A)** – Aurelio Vila (Oberena A): 1-0.

José Miguel Ugalde (Oberena A) – José Luis Olazagoitia (Orvina A): 0'5-0'5.

Gustavo Jiménez (Orvina A) – **Borja Zamarbide (Oberena A)**: 0-1.

Jesús Luis Aguinaga (Oberena A) – Roberto Monje (Orvina A): 0'5-0'5.

**Mikel Gurea Fon-Clima taldeak hirugarren postua mantendu du, Orvina B-ri 3'5-4'5 irabazi eta gero.** David Arjolen itzulera gertatu zen, baina utzi behar izan zuen partida gaixorik. Beste tablero batzutan zortea alde izan zuen Orvina B-k eta horrexegatik emaitza txukuna lortu zuen, maila mantentzeko lehian garrantzitsua izan daitekeena.

Emaitza batzuk hauexek izan ziren:

**Pedro Forján (Mikel Gurea)** – Amaia Iza (Orvina B): 1-0.

Iñigo Otazu (Orvina B) – **Imanol Martínez (Mikel Gurea)**: 0-1.

**Tarek Fahmy (Orvina B)** – Ángel Vilchez (Mikel Gurea): 1-0.

**Iker Irañeta (Mikel Gurea)** – María Martínez (Orvina B): 1-0.

**Santa Ana A-k ia ziurtatu zuen maila mantentzea, Nuevo Casino-ren etxean 4na berdindu ondoren.** Bide batez, Nuevo Casino gehiago hondoratu zuen, sailkapena dagoen moduan egonda, gutxitxo baita berarentzat.

Emaitza batzuk, hauexek:

**Pedro Viñal (Nuevo Casino)** – Patxi Sesma (Santa Ana A): 1-0.

**Víctor Rodríguez (Santa Ana A)** – Joaquín Antúnez (Nuevo Casino): 1-0.

José Manuel Redín (Nuevo Casino) – **Carlos Francisco Soler (Santa Ana A)**: 0-1.  
Mauricio Torres (Santa Ana A) – **Rafael Ruiz Escobar (Nuevo Casino)**: 0-1.

**Paz de Ziganda Ikastola A eta Alekhine taldeek 4na berdindu zuten.** Emaidza honekin Lizarrako taldeak hiru puntuko abantaila mantentzen du, baina bi handien aurka jokatu behar duenez, pentsa daiteke beheko borroka horretan emaitza ona dela Paz de Zigandarentzat.

Emaidza batzuk:

Eduardo Burguete (Paz de Ziganda) – Gorka Argandoña (Alekhine): 0'5-0'5.  
Iñigo Ganuza (Alekhine) – **Iker Ojer (Paz de Ziganda)**: 0-1.  
**Adrián Leranoz (Paz de Ziganda)** – Javier Ayucar (Alekhine): 1-0.  
Iñigo García (Alekhine) – **Juan Pablo Alegre (Paz de Ziganda)**: 0-1.  
Oscar Lazkoz (Paz de Ziganda) – Ibai Lakunza (Alekhine):0'5-0'5.

Sailkapena horrela dago:

- 1) **Orvina A – 32 puntu.**
- 2) Oberena A – 31 puntu.
- 3) Mikel Gurea Fonclima – 21 puntu.
- 4) Santa Ana A – 18'5 puntu.
- 5) Alekhine – 17 puntu.
- 6) Orvina B – 14'5 puntu.
- 7) Paz de Ziganda Ikastola A – 14 puntu.
- 8) Nuevo Casino – 11'5 puntu.

## **LEHENENGO MAILA.**

Oberena B, Sancho el Fuerte-Tiebas eta San Juan A taldeentzat oso ihardunaldi ona izan zen. Gazte Berriak, Runa eta, batez ere, Santa Anarentzat, nahiko txarra.

**Oberena Bk 6'5-05 irabazi zion Santa Ana B-ri.** Bi jokalaria gutxiagoz aritu zen azken hau eta puntu bateko zigorra jaso du horregatik. Beraz, lehenengo 6 mahaietan, 4'5-1'5. Jolastu gabe bi puntu Oberena B-rentzat eta zigorragatik puntu bat gutxiago Santa Anarentzat. Gero eta gertuago igoera Iruñeko taldearentzat. Gero eta okerrago egoera Tuterakoentzat (orain azken postuan, Runarekin berdinduta). Egia erran, horrelako hutsuneak (bi jokalaria gutxiago) ordaindu egiten dira.

Emaidza batzuk:

**Pedro Unanua (Oberena B)** – Tomás Ozaita (Santa Ana B): 1-0.  
José Ángel Carcavilla (Santa Ana B) – **Gregorio Sola (Oberena B)**: 0-1.

**Sancho el Fuerte Tiebas, liderrarengandik 3'5 puntura, bigarren postuan ezarri da, Runari 6'5-1'5 irabazita.** Bigarren postuagatik ari da lehian (ongi lehiatua) baina lehenengo postuari ere begira dago, datorren astean Sancho el Fuerte-Oberena B neurketa jokatu baita.

Emaidza interesgarri batzuk:

Roberto Pinilla (Sancho el Fuerte) – Pablo Del Río (Runa): 0'5-0'5.  
Iñaki Barbería (Runa) – **Juan de Dios Casado (Sancho el Fuerte)**: 0-1.

Carlos Saenz (Sancho el Fuerte) – Ramón Estevez (Runa): 0'5-0'5.

**Gazte Berriak A eta San Juan A taldeek neurketa garrantzitsua zuten, gora begira ari baitziren. Orain Antsoingo taldeak helburuak apaldu ditu eta San Juan A-k bere aukerak ugaldtu: 2-6.** Horrelako emaitza ustekabekoa izan zen, baina San Juan A-k erakutsi du, Iñigo Martínez gabe ere, talde ona dela Bigarren Mailarako.

Emaitza batzuk:

Alfonso Cemborain (Gazte Berriak A) – Miguel Argaya (San Juan A): 0'5-0'5.

**José Zaratiegui (San Juan A)** – Iñaki Esparza (Gazte Berriak A): 1-0.

José María Sorozabal (Gazte Berriak A) – **Francisco Sánchez Salazar (San Juan A)**: 0-1.

**Oberena C-k emaitza estua lortu zuen Zaldi Beltzaren aurrean: 4'5-3'5.** Horrela, bigarren postutik laugarrenera jaitsi da. Zaldi Beltzarentzat 3 puntu horiek arnasa hartzeko modukoak izan dira. Batez ere, beste emaitzek lagundu diotelako.

Emaitza batzuk:

María Goñi (Oberena C) – Iñaki Sasiain (Zaldi Beltza): 0'5-0'5.

Iraitz Mauleón (Zaldi Beltza) – **Javier Yaben (Oberena C)**: 0-1.

Aaron Mateo (Oberena C) – Mikel Markotegi (Zaldi Beltza): 0'5-0'5.

Sailkapena horrela dago:

- 1) **Oberena B – 27 puntu.**
- 2) Sancho el Fuerte – Tiebas – 23'5 puntu.
- 3) San Juan A – 22 puntu.
- 4) Oberena C – 22 puntu.
- 5) Gazte Berriak – 18'5 puntu.
- 6) Zaldi Beltza Xake Taldea – 17'5 puntu.
- 7) Santa Ana B – 14 puntu.
- 8) Runa – 14 puntu.

## **BIGARREN MAILA.**

**Bi lehia erabakigarri jokatzen ziren eta Arrano Elkarte A da onura gehien lortu duena: Arrano Elkarte A – Larre B, 2'5-1'5; Mikel Gurea Iruña-Motor – Oberena D, 2-2. Alaitz Xake Taldeak ere ez zuen lehenengoetikiko abantaila murrizterik lortu: Alaitz Xake Taldea – San Juan B, 2-2.**

Ihardunaldiko partida batzuk:

**Joseba Otano (Arrano Elkarte A)** – José Antonio Apesteguia (Larre B): 1-0.

**César Torres (Larre B)** – Mikel Torres (Arrano Elkarte A): 1-0.

Raúl Martínez Lasanta (Mikel Gurea Iruña-Motor) – **Enrique Cobos (Oberena D)**: 0-1.

**Jesús Mena (Alaitz Xake Taldea)** – Juan Fraile (San Juan B): 1-0.

Horrela dago sailkapena:

- 1) **Arrano Elkarte A – 14'5 puntu.**
- 2) Oberena D – 13 puntu.
- 3) Mikel Gurea Iruña-Motor – 13 puntu.

- 4) Alaitz Xake Taldea – 12 puntu.
- 5) Larre B – 11'5 puntu.
- 6) Orvina C – 11'5 puntu.
- 7) Arrano Elkartea B – 11 puntu.
- 8) Berriozar – 10'5 puntu.
- 9) Arrano Elkartea C – 10'5 puntu.
- 10) San Juan B – 10'5 puntu.
- 11) Oberena E – 9'5 puntu.
- 12) Zizur-Ardoy – 8 puntu.
- 13) Larre A – 7'5 puntu.
- 14) Gazte Berriak B – 7 puntu.
- 15) Mikel Gurea Sub12 – 5'5 puntu.
- 16) Mikel Gurea Burlada – 5 puntu.
- 17) Paz de Ziganda Ikastola B – 4'5 puntu.

Datorren astean beriz ere neurketa garrantzitsuak izanen dira: **Orvina C - Arrano Elkartea A, Oberena D – Alaitz Xake Taldea eta Larre B – Mikel Gurea Iruña-Motor.**

**2006-11-04.**

**Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.**